

Erromatarrak

Mirari Martiarena

Ezagunak dira Arditurriko Meategiak Oiartzun eta inguruetan. Arditurri esan eta erromatarren aztarnak esaldi berean kabitzen dira askorentzat. Inoiz bisitan egon ez direnek leizeak imajinatzen dituzte, baina ez, meazuloak dira. Erromatar garaitik ia atzora arte ustiatu ziren meazuloak; 1984an itxi zituzten.

Juan Guillermo Thalacker ingeniariak 1803. urtean Arditurriko meazuloak bisitatu ondoren hauxe esan zuen:

«Laurehun gizon berrehun urtez lanean arituta ere, ez litzateke nahiko izango meazulo hauek guztiak zulatzeko». Ondotik ere makina bat aritu ziren bertan lanean. Zaila egiten zait, etxe ondoan, hain leku lasaia dirudien horretan, leherketak, makinaria, langileen joan-etorria imajinatzea.

Gure etxean badaude bertan lan egindakoak, aita eta osaba. Askotan entzun izan diet Aiako Harria barrutik hutsik dagoela, eta barre egiten nien. Iaz arte ez nuen bisitarik egin Arditu-

rrin dagoen interpretazio zentrora. Egia esan, zur eta lur geratu nintzen. Ikus daitekeenaren eta izan zenaren artean sekulako aldea omen dago. Bi galeria bakarrik baitaude bisitatzeko moduan, gainerakoak lur azpian urez beteta.

Aitari beti esaten diot erromatarrak aritu zirela bertan jo eta ke lanean. Bere arabera, erromatarrak ez ziren existitu. Eta egon baziren, ez omen zituen lanean ikusi; beraz, ez dadila meritu guztia eurentzat izan. •

Ez naiz arrazista, baina...

Koldo Sagasti

Gaur, azken asteotan bezala, manifestazio baterako deialdi xelebrea plazaratu du hiritar talde anonimo batek Gasteizko kaleetan itsatsitako milaka karteletan. Protestaldirako deia ezohikoa dela diot, afixetan ez baitute iragartzen mobilizazioaren zergatia, lelo generiko bezain hutsala baino ez: “Delinkuentziaren aurka”. Ikusle objektibo batek pentsa lezake, akaso, diru-kutxa publikoaren sosak xahutu dituzten ustelkeria kasuen aurkako protesta dela. Baina ez.

Esplizituki azaltzen ez badute ere, deialdiaren benetako funtsa oso bestelakoa da: ijito familia bati, Manzanares-Cortestarrei, Aztegieta auzorako sarrera galaraztea. Horrela, argi eta garbi adierazteak, baina, nabarmenegi utziko lituzke antolatzaileen benetako motibazio arrazistak.

Segurtasunaren aitzakian Aztegieta-ko bizilagunek eragotzi nahi diote familia horri Alokabidek esleitu dion etxebizitzan sartzea, eta auzo-patruiak ere osatu dituzte dagokien pisuan

sar daitezen ekiditeko. Gaizkileak izatea leporatzen diete, horrela, modu kolektiboan, eta ez horietako baten batek egindako delitu zehatz batengatik, bai- zik eta ijito izanik balizko delituak egiteko aurreikusten dieten joera genetikoagatik.

Halakoxea da faxismo modernoa, auzo-aldarrikapenez moztortzen ditu bere asmo baztertzailleak, eta ezjakintasunez, aurreiritziz eta zurrumurruz elikatzen ditu. Beldurra oparitzen dizute ordainean segurtasuna saltzeko. •